



Euskara ukatzen didazunean, bertakoa izatea eta sentitzea ere ukatzen didazu, nahi gabe izan arren.

Euskaraz hitz egiten didazunean, herrien eta kulturen arteko zubia sendotzen ari zara, euskaratik.

Nire azalaren kolorea azalekoa besterik ez da. Euskarari esker, zu bezain euskalduna naiz. Beraz, egin nirekin ere euskaraz!



Kanpainaren informazioa
labur.eus/nirekinERE



Kanpainaren kartelak
labur.eus/kartelakERE



Kanpainaren bideoa
labur.eus/bideoaERE



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

Eduki hau beste hizkuntza batzuetan.
Gaztelaraz, arabieraz eta urduz:



CASTELLANO

عرب

اردو

Egin nirekin ere euskaraz!



Arlenys
Cuevas
Sierra
10 urte
Ondarroa

Sustraiak
**Dominikar
Errepublikan**
dituen
eta lehen
hizkuntza
gaztelera
duen
euskalduna da
Arlenys.

Sustraiak
Pakistanen
dituen
eta lehen
hizkuntza
urdua
duen
euskalduna da
Haider.

Haider
Raja
12 urte
Leitza



Egin nirekin ere euskaraz!

Euskaldunak gara Arlenys, Haider, Aimar, Aya, Nora, Sefora, Miruna, Randy, Ekhi, Hanna, Anastasia, Andriy, Zunnurain, Lassana, Abdallah, Alaia, Rayan eta Leen.

Senegalen, Dominikar Errepublikan, Saharan, Pakistanen, Ukrainan, Marokon, Ekuadorren eta Euskal Herrian jaio gara, besteak beste. Bizi, berriz, Ondarroan, Leiztan, Ibarra, Zestoan eta Zaldibian bizi gara, baina gainerako udalerri euskaldunetan ere hamaika Abdallah, Leen edota Arlenys ditugu gure artean, zorionez.

Urdua, arabiera, mandinga, kitxua, ukrainera, gaztelera edota euskara jaso dugu etxean. Euskara, zehazki, lehen hizkuntza da batzuentzat, bigarrena besteentzat, eta baita hirugarrena ere zenbaitentzat. Hala ere, euskaraz aritzen gara eskolan eta lagunartean.

Askotan, ordea, azalaren koloreagatik, aurreiritziengatik edota auskalo zergatik erdaraz hitz egiten digute gainerako herritarrek. Eta ez zaigu gustatzen. Euskaldunak garelako. Badakigulako euskara dela zubirik ederrena, eta euskara ukatzen diguten bakoitzean zubia ere ukatzen zaigulako.

Gu euskaldunak gara. Beraz, egin gurekin ere euskaraz! Egin nirekin ere euskaraz!

